

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Atal honetan negozio eredu batek funtziona dezan behar diren aktibo garrantzitsuenak deskribatzen dira.

Negozio eredu honek funtsezko baliabide batzuk behar ditu balio proposamena sortu eta eskaintzeko, merkatuetara iristeko, merkatu segmentuekin harremanak ezartzeko eta sarrerak lortzeko. Horretarako, gauz guzti hoiek aurrera eramateko, hauek dira behar diren funtsezko baliabideak:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** multzo honetan sartuko ditugu adibidez; betaurrekoak fabrikatik gugana ekartzeko edo guregandik bezeroetara ahiegatzeko garraioak, betaurrekoen sistemak, salmenta puntuak (web-a eta aplikazioa) eta banaketa kanalak.
Azken aurrekoa gehiago deskribatzea komeni dela uste dugu, izan ere, gure enpresaren puntu garrantzitsua web-a eta aplikazioa direla uste dugu. Bi hauen bidez, bezeroak ahalko dute gure betaurrekoak erosi (web-aren bidez) eta kontzertuen sarrerak erosi (aplikazioaren bidez). Web-ean agertuko da gure enpresaren informazio guztia, betaurrekoen salmenta eta haiek erabiltzeko informazio guztia. Aplikazioak berriz, sarrerak erosteko balio izango du.
- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** hemen sartuko ditugu betaurrekoen marka, informazio pribatua, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak. Gure baliabide intelektual garrantzitsua betaurrekoetan lortutako softwarea da. Izan ere, beste betaurreko birtualen desberdintasuna lortzen dugu softwarearen bidez.
- **GIZA BALIABIDEAK:** gure enpresarentzako giza baliabide garrantzitsuenak hauek dira: web eta aplikazioa diseinatzeko, arazoak konpontzeko eta aurrera eramateko adituak. Izan ere, sorkuntza alorretan eta ezagutza maila eskatzen dutenetan, giza baliabideak ezinbestekoak dira.

